

Euskara ikasten eta erabiltzen Argentinan

Victoria Famin

Utz ditzagun unetxo batez, teoriak, eskurapen-ereduak, aldagaiak, junta-gailuak, atazak eta kurrikuluak. Ahantz ditzagun apur batean, planak, estrategiak, softwareak eta corpusak. Euskara biziberritu nahi dugunon ikuspegitik, tresna kamutsak dira horiek guztiak, hutsaren hurrengoak, barnean taupadaka ari den bihotza eduki ezean. Victoria Famin euskara-irakasle argentinarra euskara nola ikasi zuen kontatzera datorkigu. Esan-dakoak beren horretan daude denon gogoetagai.

Aitorren hizkuntza

*Euskal Herrian
euskaraz
nahi dugu hitz eta
jolas*

Euskararekiko nire zaletasuna noiz hasi zen esatea ez da batere erraza, nire kasua nahikoa berezia izan zen-eta. Normalean, arbasoen kontua oso garrantzitsua izaten da. Euskal Herritik etorritako amonak edo aitonak argentinarraren askoren bizitza markatu du. Horregatik, Argentinan hainbat euskal etxe topatzea ez da harritzekoa. Arbasoen kultura eta, batez ere, tradizioak bizirik mantentzeko nahiak bultzatzen du jendea euskal etxeetako ekintzetan aritzera. Eta, noski, euskarak beti oso leku berezia izan du beste ekintzen artean.

Baina, lehen esan dudan bezala, nire kasua bestelakoa izan zen, nire arbasoak euskaldunak ez zirelako. Euskal Herriko kultura eta euskara bereziki ezagutzeko prozesua luzea izan zen eta hainbat etapa izan zituen. Ezin dut une zehatzik edo arrazoi berezirik aurkitu, baina erraza egiten zait esperientzia eta sentimendu asko identifikatzea. Hala ere, nire oroipenak aztertzen baditut, zerbait garrantzitsua agertzen da: egunkarian irakurritako iragarkia. Nire hiriko euskal etxean euskara ikas zitekeela zioen iragarki hark. Ni oso gaztea nintzen, hamabi urte, eta ez nekien askorik euskarari buruz, ezta Euskal Herriari buruz ere. Banekien Euskal Herria oso herri txikia dela, Europan dagoela, hango dantzak oso politak eta alaiak direla... eta hango hizkuntza euskara dela. Bai, euskara oso hizkuntza zaharra dela baina, hala ere, oraindik bizirik dagoela banekien, eta horrek harrituta utzi ninduen. Baina zerbait gehiago ere nabaritu nuen, zerbait adieraztezina gertatu zen nire buruan. Eta oraindik hitz egiten den hizkuntza zahar hori, latina baina zaharragoa den hizkuntza misterioitsu hori ikastea erabaki nuen.

Nahiz eta bidea oso erraza iruditu, oztopo batzuk aurkitu nituen eta ezin izan nuen neure helburua lortu. Ordutegia ez zen egokia niretzat

eta aukera bakarra zen, besterik ez zegoen. Orduan neure plana aldatu nuen. Euskal etxearekin lehenengo harremana egina zegoen eta, euskara-klaseetara joan ezin nintzenez, euskal kulturaren beste arlo batean aritzea erabaki nuen: euskal dantzetan. Horrek euskal etxeko komunitatearekin harremanetan jartzeko aukera eman zidan eta horrela, nahiz eta euskaldun arbasorik ez izan, Euskal Herria ezagutzen eta miresten hasi nintzen.

Eta horretan, euskal kulturaren munduan murgildu ahala, gero eta gehiago jakin nahi izaten nuen. Eta noski, lortu gabe geratu zitzaidan helburua, hau da, euskara ikastea, bizirik zegoen nire buruan. Dantza-taldekoekin euskal abestiak buruz ikasten genituen, nahiz eta zer esan nahi zuten argi eta garbi ez ulertu. Hizkuntzaren doinua barruan geneukan eta horrek, nire kasuan, ondorio bereziak izaten zituen.

Urte bi pasa ondoren, berriro ireki zuten euskara-kurtsoa euskal etxean. Ez nuen parada hori galdu. Azkenean hasi nintzen euskara ikasten. Oso gutxi ginen klasean eta, egia esateko, zaila egiten zitzaidan. Nahiz eta euskara ikasteko nire gura oso handia izan, errealtatea nire ametsa baina askoz gogorragoa zen. Gramatika asko ikasi eta gutxi hitz egiten genuen. Zaila zen euskaraz pentsatzea, zeren eta guk kontaktu gutxi baikeneukan hizkuntzarekin, bizirik dagoen euskararekin. Nire hirian ez zegoen euskaldun zaharrik, ezta euskaldun berririk ere. Ezin genuen Euskal Telebista ikusi. Beraz, oso zaila zen benetako euskara entzutea. Guretzat nahikoa urrun geratzen zen oraindik ere hitz egiten den hizkuntza.

Hala ere, lehenengo urtea bukatu eta asko ikasi nuen. Ezin nuen hitz egin, baina gauza asko nekizkien euskararen gramatikari buruz eta, aha! legin handiak eginez, zerbait ere idatz nezakeen. Nik gehiago nahi nuen, ordea. Hala ere, pozik geratu nintzen nire lehenengo kurtsosan lortutako gauzekin. Baina, berriro agertu ziren oztopoak: hurrengo urtean nire irakasleak ezin izan zituen klaseak eman eta euskararik gabe geratu nintzen. Baina nire bizitzan Euskal Herriak leku berezia lortua zuen jadanik, eta euskal etxean jarraitu nuen.

Ez nuen euskara ikasteko nahia galdu eta, urte batzuk pasa ondoren, beste gertaera batek berpiztu zuen nire interesa. Euskal Herritik etorritako mutil bat ezagutu nuen. Unibertsitateko ikasketak egitera etorri zen eta harrituta geratu zen nire hiriko euskal etxea ezagutu zuenean. Ez zuen uste guretzat euskal kultura eta tradizioak hain inportanteak zirela. Eta Euskal Herriarekiko gure sentimendua hunkigarria zela esan zigun. Niretzat, noski, esperientzia horrek beste esanahi bat izan zuen.

Mutil hori euskaldun zaharra zen eta nahiz eta ni berarekin euskaraz ez mintzatu, esan dezaket euskara biziarekin lehenengo kontaktua izan nuela. Nik ezin nuen euskaraz hitz egin garai hartan, baina bere hizkera entzun nuen. Eta Oskorriren *Euskal Herrian euskaraz* berarekin ikasi nuen. Mutil hori bi hilabetez egon zen Argentinan, baina nahikoa izan zen euskal etxeko jendearen interesa pizteko. Eta nire kasuan, noski, oso garrantzitsua izan zen, euskara ikasteko neure nahiak gero eta indar gehiago zeukan.

Orain, momentu hura gogoratzen dudanean, konturatzen naiz euskaldun bat ezagutzearen garrantziaz. Agian, mutil horrek ez zuen inoiz jakin bere bisita hain inportantea izan zela guretzat. Ez dut uste konturatu zenik hari esker nik euskaraz hitz egitea erabaki nuela. Baina horrela izan zen. Eta momentu hartan hartutako erabakia ez dut inoiz ahaztu. Eta gaur esan dezaket helburua lortu dudala.

Urtebete pasa eta gero, berri on bat iritsi zen euskal etxera: Eusko Jaurlaritzak eta FEVA-k (Argentinako Euskal Etxe guztiak elkartzen dituen organismoa) egindako programak, hau da, *Argentinan euskaraz* programak, aurrera jarraitzen zuela: hurrengo udan ikastaldi berria antolatze-koa zela. Programa horrekin Argentinan euskara-irakasleak trebatu nahi zituzten. Udako kurtso intentsiboak proposatzen zituzten, Argentinako euskal etxe batean, Euskal Herrian ohi diren barnetegiak bezalakoak. Gero, barnetegira joaten ziren pertsonak, nork beren euskal etxean, euskara-klaseak eman beharko zituzten. Kurtsoa dohainik zen, Eusko Jaurlaritzak ordaindutakoa. Hori zen, gutxi gorabehera, proposamena.

Euskal etxekoek kurtso berrian matrikulatzea bazegoela esan zidatenean, betidanik itxarondako aukera zela jakin nuen. Berehala apuntatu nintzen, baina nire lekua ez zegoen ziurtatuta. Euskal etxe bakoitzak hiru pertsonaren izenak eman zitzakeen eta gero, aukeren arabera, lekuak emango zizkiguten. Hala ere, nire barruan ziurtasuna nabaritzen nuen eta koader-
no zaharra armairutik atera nuen, ikasitako euskara gogoratzeko. Ez nekien argi eta garbi nolakoa izango zen udako barnetegia, baina jakin banekien, hara joanez gero, euskaraz idazteko eta mintzatzeko gai izango nintzela, Oskorriren eta Gozategiren abestiak ulertzeko gai izango nintzela. Eta izugarrizko poza ematen zidan barnetegira joateko ideiak.

Hilabete batzuk pasa ziren eta FEVA-ren erantzuna euskal etxera iritsi zen. Urtarrilean barnetegi batean egongo nintzen. Azken batean, nire helburua lortuko nuen: oso zaharra den hizkuntza, latina baina zaharragoa den hizkuntza, oraindik ere Euskal Herrian hitz egiten zen hizkuntza ikasiko nuen. Euskara ulertuko nuen, euskaraz mintzatuko nintzen.

Euskararen bidean

*Euskal Herria da
gorputza,
euskara da bihotza*

Urte hartan udarekin batera barnetegia iritsi zen. Argentinako euskal etxe batean izango zen eta aukeratutakoa San Nicolasekoa izan zen. San Nicolas Buenos Airesen dago eta, nahiz eta hiri handia ez izan, nahikoa inportantea da. Oso hiri zaharra da eta oso leku garrantzitsua dauka Argentinako historian.

Nik ez nuen ezagutzen San Nicolaseko euskal etxea, ezta hiria ere. Beraz, dena izan zen berria niretzat. Euskal etxea txikia zen, xumexumea, baina oso atsegina. Gainera hango jendeak lan egiteko gogo bizia zuen eta hasieratik oso jatorrak izan ziren gurekin, batez ere, euskal etxe-ko presidentea. Hiria ere gustatu zitzaidan hasieratik. Paraná ibaiaren ondoan, oso hiri lasaia zen. Hango etxeek hiriko iragana erakusten zuten, baina plazetan eta parkeetan umeek eta gazteek San Nicolaseko bizitza berpizten zuten.

Hiria eta euskal etxea oso atseginak iruditu zitzaizkidan, baina harrituta geratu nintzen nire ikaskideak ezagutu nituenean. Nik ez nekien ezer taldeari buruz eta lehenengo egunean, beste ikasleak hotelean topatu nituenean, ustekabea handia izan nuen. Ikasleok hamabost bat ginen, denok Argentinako leku desberdinetatik etorriak. Mutil bat Jujuykoa zen eta San Nicolasa joateko hogeita bi bat ordu egin zituen autobusez. Baina hori ez zen harrigarriena, beste herri bateko jendea ere bazegoen. Bi neska Uruguaykoak ziren eta, ni bezala, San Nicolaseko euskal etxera etorriak ziren euskara ikastera.

Hasieran oso arraroa izan zen dena, baina laster lagun bihurtu ginen eta talde bat sortu zen. Uda hartan bi barnetegi zeuden San Nicolasen: bata gurea, euskara ikasten hastekoa eta bestea euskara jadanik zekitenen ikasleentzako. Horregatik, bi irakasle zeuden, biak Euskal Herrikoak. Lehenengo egunean ezagutu genuen gurea, Jose Franzisko Zinkunegi. Hasieran oso zorrotza eta serioa iruditu zitzaidan baina egunak pasa ahala, oso jatorra zela ikusi nuen.

Barnetegia oso ondo antolatuta zegoen. Hotel batean lo egiten genuen eta klaseak euskal etxean ematen ziren. Ordutegia nahikoa gogorra zen, baina guk bagenekien kurtsoa intentsiboa izango zela eta, euskaraz laster hitz egin nahi genuenez, pozik aritu ginen. Goiz osoko klaseak hartu eta gero, jatetxe batean bazkaltzen genuen. Arratsaldean berriro klaseak genituen, baina bi ordu eta erdikoak, besterik ez. Horregatik genuen denbora, zerbait gehiago ere egiteko. Normalean, plaza batera joaten ginen edo parke batera, eguzkia hartzera. Hala ere, batzuetan gogorra zen, zeren eta San Nicolaseko uda oso beroa eta hezea izaten baita eta batzuetan berrogei graduko tenperatura ere izaten genuen. Baina moldatzen ginen eta aurrera jarraitzen genuen.

Lehenengo bi asteetan Jose Franzisko Zinkunegirekin lan egin genuen. Baina gure barnetegia bi hilabetekoa zen eta lehenengo hamabost egunak pasa zirenean, irakaslea aldatu zen. Geratzen ziren sei asteetan, sei irakasle izan genituen. Denak argentinarrak eta, gu bezala, Argentinan antolatutako barnetegietan euskara ikasitakoak. Esperientzia hori oso berezia izan zen. Irakasleekin batera klasean lan egiteko modua ere aldatu egiten zen eta horrek dinamika gehiago ematen zion kurtsoari. Hala ere, desabantaila batzuk ere bazituen metodo horrek. Batzuetan koordinaziorik eza nabaritzen genuen. Eta gaiak elkarren arteko loturarik gabe geratzen ziren. Baina, azken batean, nahiz eta arazo batzuk agertu, irakasle bakoitzak oso lan ona egin zuen. Askok ikasi genuen lehenengo uda hartan. Ariketa oso interesgarriak egin genituen eta euskararen munduan sartzen hasi ginen.

Pozek gogoratzen dut oraindik ariketa bat: irratsaio bat taldeka prestatu behar genuen, berriak, iragarkiak eta guzti. Gero grabatu egin genuen eta besteei entzunarazi genien. Oso esperientzia polita izan zen, eta gainera, barnetegiaren bukaera egin genuenez, oso ona izan zen gure helburua, hau da, euskara ikastea, lortu genuela ikusteko. Euskal abesti ugari ikasi genituen eta gero, geure kabuz, hotelean zerbait edateko elkartzen ginen, kanta haiek abesten genituen.

Bestalde, euskara ikasteaz gain, parte hartzen genuen euskal etxekoek prestatzen zituzten ekintzetan eta horietan ere euskara sartzen genuen. Donostiako festa oso adibide polita da. Irakaslearekin martxa ikasi genuen eta, gero, afarian jendearekin abestu. Gainera, txano tradizionalak egin genituen eta jendea pozik zegoen.

Ondo bukatu genuen ikastaroa uda hartan, baina triste samar geunden, zeren eta, azken batean, lagunak izaki, nor bere etxera itzultzea oso gogorra izango baitzen. Hala ere, lasai geunden, hurrengo urteko udako barnetegian berriro elkartuko ginela bagenekielako.

Bakoitzaren hirira itzuli eta apur bat geroxeago zer gertatu zen aipatuko dut. Orain nahiago dut hurrengo barnetegia gogoratzea, hori ere San Nicolasen egin baitzen. Bai, hurrengo urtean berriro elkartu ginen Buenos Aireseko hiri hartan, eta lehenengo barnetegian bezala, oso giro ona sortu zen hasieratik. Baina, dena ez zen berdin izan. Barnetegian bi talde zeuden: gurea, noski, eta euskara gehiago zekitenena. Baina bigarren talde horretan ikasle berriak zeuden: aurreko urtean Euskal Herrian egondakoak. Haiek, gu bezala, Argentinakoak, eta barnetegi batean euskara ikasten hasitakoak ziren. Barnetegiak bukatu ondoren, Euskal Herrira joan ziren, hango barnetegi batean euskara ikastera. Lagun hauek ezagutzeak gure euskara ikasteko motibazioa berpiztu zuen. Haien esperientzia Euskal Herrian oso polita izan zen eta beti zuten zerbait guri kontatzeko.

Kurtsoa, hasieran, aurrekoa bezalakoa izan zen. Gure irakaslea Jose Francisco Zinkunegi izan zen. Nahikoa kezkatuta geunden ezertaz gogoratzen ez ginelako, baina hori normala zen. Urtean zehar bizi ginen lekuan ez zegoen irakaslerik eta denbora luzea pasa genuen euskara-kla-seetara joan gabe. Hala ere, laster konturatu ginen ikasitakoa erraz etorzen zitzaigula burura eta prest geundela ikastaro berria egiteko.

Esan dudan bezala, hasieran kurtsoak aurrekoa bezalakoa zirudien baina lehenengo egunak pasa ahala zerbait berezia bazegoela konturatu ginen. Metodoa desberdina zen. Momentu hartan guk jadanik bagenekien euskaraz hitz egiten. Horregatik aldatu zen kurtsoaren antolaketa. Kurtsoaren unitateak gaiak ziren eta gai bakoitzaren barruan trebetasun guztiak lantzen genituen. Adibidez, gogoratzen dudan gai bat “Sukaldaritza” da. Guk errezetak irakurri eta entzun genituen, hiztegia landu genuen aditz berezi batzuk eta osagaien izenak ikasiz. Gramatikari dagokionez, aginterak landu genituen eta bukatzeko binaka geure errezetak asmatu genituen. Gero, idatzitako errezetekin liburutxo bat osatu eta kopiak egin genituen etxera eramateko. Era berean, gai asko landu genituen barnetegi horretan eta, egia esateko, oso interesgarria iruditu zitzaidan. Modu horretan guk zentzua aurkitzen genuen ariketetan, eta euskara eguneroko bizitzan gero eta gehiago erabiltzen genuela sumatzen genuen. Gainera, gai batzuk aproposak ziren euskal kulturari buruz hitz egiteko, eta guretzat hori oso inportantea zen.

Hala ere, metodo horrek alde txarrak ere izan zituen. Ariketen baldintzak gutxi ziren eta askatasun handia genuen testuak egiteko. Hori arriskutsua

izaten da hizkuntza bat ikasten duzunean, zeren eta askotan errazagoa izaten baita jadanik ezagutzen dituzun tresnak erabiltzea berriekin saiatzea baino. Horrela, zuk gutxiago ikasten duzu, baina, hala ere, zure lanak itxura ona izaten du. Erabakia ikasle bakoitzaren ardura da, noski, baina batzuetan zaila da hortaz konturatzea.

Irakaslearen kontua ere desberdina izan zen. Lehen esan dudan bezala, hasieran Jose Franzisko Zinkunegirekin egon ginen baina, bi aste pasa eta gero, beste irakasle batzuk izan genituen. Euskal Herritik itzulitako taldeko bi neska. Bata Uruguaikoa zen eta bestea La Pampakoa, Argentinakoa. Haiek barnetegia bukatu ondoren, metodologia-ikastaro batzuk egin zituzten Euskal Herrian eta gurekin jarraitu zuten klaseak ematen. Esperientzia oso ona izan zen, haiek gurekin lan egiteko gogo handia zutelako eta metodo berri hori haien gustukoa zelako. Gainera, gure irakasleei euskal musika asko gustatzen zitzaien eta haien bidaiari lortutako abesti berriak klaseetan entzun genituen. Hori guretzat oso inportantea zen zeren eta abestien bidez lortzen genituen esperientziak bestelakoek baino erreagoak baitziruditen. Kantak ez ziren guretzat bereziki prestatutakoak eta horregatik, gaia ulertzen genuenean, gure poza bikoitza zen.

Bestalde, irakasleak oso gazteak zirenez, klasetik kanpoko ekintzetan haiekin egoten ginen eta elkarrekin joaten ginen zerbait hartzera edo buelta bat egitera. Horrela, poliki-poliki hasi ginen klasetik kanpo euskaraz hitz egiten. Eta guretzat hori oso zaila izan zen, guk hasieratik erdaraz hitz egiten genuelako gure artean. Ohitura aldatzea ez da batere erraza. Baina San Nicolasen txantxetan hasi ginen euskaraz mintzatzen. Bai, txantxetan.

Hemen, Argentinan euskararen egoera oso berezia da, jendeak ez baitu bere doinua ezagutzen. Hemen, norbaitek frantsesa edo ingelesa entzuten duenean, berehala konturatzen da zein hizkuntza den. Baina euskara entzutean, zorabiatuta geratzen da. Eta guk egoera hori aprobetxatzen genuen San Nicolasen. Elkarrekin irteten ginenean, euskaraz hitz egiten genuen eta guri entzuten zigutenak harrিতuta geratzen ziren. Eta guretzat hori oso barregarria zen. Gainera, oso metodo ona zen jendea ezagutze-ko. Argentinarrak beti oso jatorrak izaten dira atzeritarrekin eta guk, euskaraz mintzatzen ginenean, atzeritarrek ematen genuenez, beti primeran pasa genuen.

Pasadizo hauek ez dira oso serioak baina, egia esateko, oso inportanteak izan ziren gure euskalduntze-prozesuan. Oso urrun geunden Euskal Herritik eta euskaldun-giroa sortzea zen zailena. Eta euskararen munduan murgiltzeko ezinbestekoa zen hori. Beraz, irudimena erabili genuen eta gure euskaldun-giroa berezia lortu genuen. Hala ere, ezin dut esan momentu hartan euskaraz arazorik gabe mintzatzeko gai ginenik. Ez, hori gure ikas-prozesuaren parterik luzeena izan zen eta zailena. San Nicolasen hasi ginen, baina lan handia egin behar izan genuen hurrengo barnetegietan ere. Eta, gaur ere, ahal denean, horrekin lan egiten dugu, lortutako trebetasuna ez galtzeko.

San Nicolaseko bigarren barnetegia bukatu baino lehen, beste taldekoak etorri zen eta denon artean, azken jaia antolatu genuen. Antzerkia egin

genuen, baina hori egiteko lan handia egin behar izan genuen, zeren eta testuak, jantziak eta eszenografia guk egindakoak baitziren. Denak arrakasta handia izan zuen eta oso bukaera polita izan zen.

Horrela, ia oharkabeen bukatu genuen San Nicolasen geure azken barne-
tegia. Hurrengoak beste hiri batean izango ziren, baina guk ez genekien
hori. Hala ere, beti bezala, triste samar alde egin genuen. Eta horrela
bukatu zen San Nicolaseko etapa. Euskaldun bihurtzeko lehenengo pau-
soa Buenos Aireseko hiri horretan eman genuen. Nahiz eta momentu har-
tan ez konturatu, esperientzia hori oso garrantzitsua izan zen guretzat.
Hango barneketan bizi izan genituen gauzak ez genituen inoiz ahaztu.
Hasiera horrek euskararekiko gure harremanak zein bide hartuko zuen
zedarritu zuen. Gero gauza batzuk aldatu ziren, baina San Nicolasen
egindako barneketak gure buruan geratu ziren.

Ikasitakoa irakastera

*Guk euskaraz.
Zuk zergatik ez?*

Orain artekoan, nire euskalduntze-prozesua aipatu dut baina, lehen esan
dudan bezala, Argentinan *Euskaraz* programaren proposamenak bi alde
zituen niretzat. Alde batetik, nik barneketan ikasi behar nuen eta, bes-
tetik, nire hiriko euskal etxean klaseak eman behar nituen. Eta atal horre-
tan nire prozesua irakasle bihurtzeko kontatuko dut.

Paranan une hartan zegoen euskal etxe bakarra *Ibai Guren* zen. Ni euskal
dantzak ikasten hasi nintzen hamabi urte nituenean eta poliki-poliki eus-
kal etxeko bizitzan aritzen hasi nintzen. Baina nire lehenengo barneketan
egon ondoren, euskal etxean neukan lekua erabat aldatu zen. San Nicola-
setik itzuli eta gero ni euskara-irakaslea nintzen. Eta, nahiz eta aldaketak
oso polita zirudien, ez zen batere erraza izan leku berri horretan aritzea.
Hala ere, orain urte hartan gogoratzen ditudanean, badakit merezi izan
zuela. Ikasleekin lortutako helburuek izugarritzko poza eman zidatelako.

Nire klaseetara joaten ziren pertsonak oso desberdinak ziren. Adibidez,
adinaren kontua oso inportantea zen. Nire ustez, oso komenigarria zen
jendea, adinaren arabera, talde desberdinetan banatzea baina, aldi bere-
an, taldeak txikiegiak izateko arriskua zegoen. Gainera, lehenengo kla-
seak pasa ondoren konturatu nintzen gazteek eta helduek elkarrekin
taldea orekatu egiten zutela eta talde bat, besterik ez nuen osatu. Horre-
gatik, Parana nire lehenengo kurtsoan hirurogeita bi urteko ikasle bat
neukan eta beste bat hamalau urtekoa! Hala ere, lehen esan dudan beza-
la, batzuetan osa ona zen egoera hori zeren eta gazteek alaitasuna ekar-
tzen baitzuten klaseetara eta, beste batzuetan, helduen laguntzarekin
lasaitasun-pixka bat lortzen nuen. Eta haiek denboraren poderioz lagun
bihurtu ziren.

Hala ere, adina ez zen arazo bakarra. Euskara ikasteko motibazioa oro-
korra arbasoen hizkuntza berreskuratzea zen, baina horrek gauza desber-
dinak esan nahi zituen, norberaren arabera. Batzuek, batez ere
helduenek, zerbait ikasi nahi zuten, hitz batzuk ulertzeko gai izateko.
Haientzat klaseak euskal kulturari buruz hitz egiteko aukera ziren, lagu-
nekin elkartzeko egun bat. Horregatik, nahiz eta batzuetan asko ikasi eta
etxerako lan guztiak egin, ez zuten gauza berririk eskatzen. Haien erri-

moa nahikoa motela zen eta batzuetan atzeratu egiten ziren. Baina ez ziren kezkatzen. Haiek ondo pasa nahi zuten eta, zorionez, hori lortzen zuten.

Gazteek, berriz, beti zerbait gehiago nahi zuten. Haien ustez arbasoen hizkuntza berreskuratzea euskara hitz egitea zen, eta, helburu hori lortzeko lan egin nahi zuten. Gainera, askotan, azkarrago joaten ziren eta erraz ulertzen zituzten gaiak. Alde hori, adinarena baino garrantzitsuagoa izaten zen askotan, baina, hala ere, talde ona zen eta elkarrekin ondo egiten zuten lan.

Kurtsoa berezi samarra zen. Klaseak astean behin, larunbatetan, ematen genituen, horixe baitzen egiteko modu bakarra. Hala ere, ondo aprobetxatzen genuen denbora. Hasieran, nik ez nekien klaseak nola antolatu, baina, zorionez, laguntza jasotzen nuen. Gure irakasleak, Jose Francisco Zinkunegik, lehenengo klaseak prestatu eta bidali zizkigun. Horregatik, hasieran ez zen hain zaila izan. Hala ere, aldaketa batzuk egin behar izan nituen ariketa batzuk ez baitziren nire taldearentzat egokiak. Baina lanik handiena egina nuen. Horrela, poliki-poliki hasi nintzen klaseak prestatzen ikasten. Beti neure ikasle-esperientzia kontuan hartzen nuen eta, horrela, ikasleen zailtasunak hobeto ulertzen nituen. Eta barnetegiak gogoratuz, klaseetan abestiak lantzea bururatu zitzaidan. Eta gero, beste ariketa berriak, jokoak... Azkenean ni neu hasi nintzen klaseak antolatzen.

Baina, nire irakasle-lana ez zen klaseak ematea besterik gabe. Hori nire lan nagusia zen, baina gero euskal etxean beste gauza batzuk egiten nituen euskara zabaltzeko. Esate baterako, dantza-taldeko lagunei abestiak irakasten nizkien. Horrela, emeki-emeki nahasten zituzten euskara eta euskal dantzak. Eta, azken batean, horixe zen logikoa, biak baitira Euskal Herriko kulturaren osagaiak, biak inportanteak.

Bestalde, euskal etxeko paperetan ere hasi ginen gauzak euskaraz jartzen eta, horrela, jendeak, nahiz eta euskara ez ulertu, hitz batzuk ezagutzen zituen eta interesa handitzen zen. Euskal etxeko jendeak euskara ezagutu behar zuen, ohitura hartzeko, eta horrela, behintzat, zerbait irakurtzen zuten euskaraz.

Euskal etxetik kanpo ere jarraitu nuen euskara zabaltzen. Nik unibertsitatean linguistika ikasten nuen eta katedra batean gaztelaniaren historiari buruz lan egiten genuen. Irakasleak kronologiari buruz hitz egin zuenean, euskera aipatu zuen, Europako hizkuntza zaharrenetako bat da-eta. Eta une hartan, nik klasean komentatu nuen nik hizkuntza hori ikasten nuela. Irakasleak euskararekiko interes handia zuen eta eskatu zidan hurrengo egunean euskarari buruzko klase berezia prestatzeko. Eta nik prestatutako klasea, nahiz eta oso xumea izan, interesgarria izan zen. Horrela, unibertsitatearen arloan ere euskara zabaltzen hasi nintzen.

Uste dut nire irakasle-lana onuragarria izan zela euskal etxeko jendearentzat. Baina niretzat ere oso garrantzitsua izan zen. Klaseak prestatzen nituenean, ikasitako gaiak argiago geratzen zitzaizkidan. Eta nahiz eta lehenengo urtean zalantza ugari izan, poliki-poliki ziurtasuna lortu nuen. Gainera, klaseetan ikasleekin hitz egiten nuenean, galdera berriak ateratzen

tzen ziren eta horrek gauzak berriro pentsarazten zizkidan. Horrela, barnetegietan ikasitakoa hobeto finkatzen zen nire buruan. Horrek garrantzi handia zuen, zeren eta urtean zehar ez bainuen klaserik eta zaila zen dena gogoratzea edo nire kabuz ikastea.

Azken batean, euskara-irakasle bihurtzea oso ona izan zen Paranako euskal etxearentzat, horrela berriro euskara-klaseak eskaintzen zituen eta euskal kulturaren arlo bat ez zen galduko komunitatean. Eta oso onuragarria izan zen niretzat ere. Ekintza horren bidez, barnetegietan ikasitakoa indartzen nuen eta gainera euskararen harremana mantentzen nuen. Baina pozik handiena eman zidana ikasleek lortutakoak ikustea izan zen. Sentimendua oso polita izan zen eta, egia esateko, nire bizitza aldatu egin zuen. Nik literatura eta linguistika ikasten ditut, irakaslea izateko. Eta, hasieran, ez nekien irakaslea izatea gustatuko zitzaidan. Baina, euskararen esperientzia bizi ondoren, zalantzak nire burutik alde egin zuen.

Hori dela eta, lasai esan dezaket euskarari esker gauza asko lortu nituela, eta nahiz eta une hartan neure euskalduntze-prozesua ez bukatu, hasieran pentsatzen nuen baino helburu gehiago lortu ditut.

Betiko gogoak barnetegi berrian

*Euskaraz batean eta
bestean
lortuko dugu egunen
batean*

San Nicolaseko barnetegiak lehenengoak izan ziren, ez bakarrik, ordea. Nahiz eta ni euskal etxean euskara-klaseak jadanik eman, banekien nire euskalduntze-prozesua bukatzeko asko falta zitzaidala. Eta Argentinan *Euskaraz* programa antolatzen zutenek ere bazekiten hori. Horregatik, bigarren etapa Argentinako beste euskal etxe batean egin genuen. Eta Bahía Blancakoa izan zen aukeratua. Euskal Etxe hori lehenengoa baino handiagoa zen. Gainera, haiek bazeuzkaten euskara-irakasleak eta, noski, euskara-klaseak ere bai. Hala ere, uda zenez, ez genuen ikaslerik aurkitu.

Gu, urtero bezala urtarrilean elkartu ginen euskal etxean, oso pozik. Niretzat lekuaren aldaketa oso inportantea izan zen, zeren eta Bahía Blancara joateko hamazazpi ordu egin behar bainituen autobusez. Horrek esan nahi zuen barnetegia bukatu arte ezin izango nintzela etxera itzuli. Hasieran, egoera hori nahikoa gogorra iruditu zitzaidan baina, azken batean, oso ona izan zen guretzat. Etxera joaten ginenean, berriro gatzelaniaz hitz egin eta erritmoa galtzen genuen. Baina barnetegi horretan, Bahía Blancoan, geratu behar nuen eta horrela ez nuen euskararekin lotura galtzen.

Lehenengo egunean gure betiko irakaslearekin, hots, Jose Francisco Zinkunegirekin elkartu ginen, baina ez zegoen bakarrik. Egun hartan gure irakaslea izango zena ezagutu genuen. Oso gizon serioa iruditu zitzaigun hasieratik, isila zen eta gainera, hitz egiten zuenean, oso euskara itxia erabiltzen zuen. Zaila zen bere hizkera ulertzea eta gainera, hasieran konfiantza handirik ez genuenez, oso gutxi hitz egiten genuen. Baina gero, lehenengo egunak pasa ahala eta berarekin bakarrik geratu ginenean, egoera erabat aldatu zen. Eta gure irakasle berriarekin lortu genuen harremana ezinhobeia izan zen.

Irakaslea batzuetan oso zorrotza zen, adibidez, berarekin ezin ginen gaztelaniaz mintzatu. Eta elkarrekin bazkaltzen eta afaltzen genuenez, denbora luzea pasa genuen euskaraz. Hasieran oso gogorra iruditu zitzaidan, ohitura ez genuelako baina gero, ia konturatu gabe hasi ginen gure artean euskaraz mintzatzen, irakaslearen beharrik gabe.

Klasean ere trebetasun hori lantzen genuen eta irakasleak gai bat proposatzen zuen, guk, geure artean eztabaida genezan. Lehenengo eztabaidak nahikoa epelak, izan ziren baina pentsatzen genuena esateko gure euskara nahikoa zela konturatzen hasi ginenean, klaseak gero eta interesgarriagoak ziren. Gainera, beste ariketa-mota berria egin genuen: liburuak irakurtzen genituen, hasieran nork bere buruari eta gero besteei istorioak kontatzen genizkien. Irakasleak ekintza hori proposatu zigunean, zailegia iruditu zitzaigun. Ezin genuen pentsatu, ezta hurrik eman ere, guk ipuin bat lagunei euskaraz kontatzeko gai ginela. Baina saiatu ondoren, berehala konturatu ginen egin zitekeela hori. Esperientzia horrek izugarrizko poza eman zigun, gure euskara gero eta sendoagoa zela konturatu baikin. Eta oso garrantzitsua izan zen gure buruarengan konfiantza gehiago izateko.

Ipuinekin lehenengo esperientzia izan ondoren, zerbait zailago egitera ausartu ginen eta gaiak prestatu genituen. Lehenengo aldian guk geuk aukeratu genuen gaia. Errazagoa izango zen horrela; baina bigarrenean irakasleak berak eman zigun. Hasieran oso gai arraroak iruditu zitzaizkigun eta pentsatu genuen ezin izango genuela hitz egin. Baina, gero, erronka berria zela pentsatu genuen eta aurrera joan ginen. Eta lortu ere egin genuen edozein gairi buruz euskaraz zerbait esatea.

Gainera, ariketa horrekin idazmena ere lantzen genuen, zeren eta gaia aurkeztu ondoren, testu bat idatzi behar baikenuen klasean esandakoa laburtuz. Eta testua desberdina izaten zen. Guk idatzitako testua bitan edo gehiagotan irakur genezakeen. Bestalde, testuak idazten genituenean, gramatika ere lantzen genuen. Gai bat prestatzen genuenean, egoera azaldu eta arazoak aipatu behar genituen, gure iritzia eman behar genuen eta hori egiteko gure gramatika zabaldu behar izan genuen. Horrela, ariketa batekin asko aurreratu genuen.

Ikastaro horretan klasetik kanpoko ekintzak ere ugari izan ziren. Txango batzuk egin genituen. Gehien gogoratzen dudana Sierra de la Ventanakoa da. Bahía Blancatik gertu mendiak badaude eta lehenengo asteburuan, barnetegian bi taldeak zeudenean euskal etxeko jendeak txangoa antolatu zuen. Denok elkarrekin Sierra de la Ventanara joan ginen, eguna pasatzera. Eta benetan, oso ondo pasa genuen. Mendira joan ginen eta gero laku batera. Horrelako txangoak oso politak izaten ziren klasetik kanpo baikeunden eta ez genuen ariketarik egiten, baina, hala ere, gure irakaslea gurekin zegoenez, euskaraz mintzatzen ginen. Hori izan zen euskaraz hitz egiteko ohitura hartzeko modurik onena.

Era berean, barnetegia bukatu baino lehen, Bahía Blancako euskara-irakasleak bere Monte Hermosoko etxera joatera gonbidatu gintuen. Monte Hermoso itsas herri bat da eta Bahía Blancatik oso gertu dago. Hango

hondartzak oso politak dira eta Bahía Blancako jendea udan hara joaten da oporrak pasatzera. Eta gu ere hara joan ginen, egun pare bat pasatzera. Sierra de la Ventanako esperientzia berriro egin genuen, baina aldi horretan errazagoa izan zen guretzat, euskararekin lan handia egin ondoren, hitz egiteko ziurtasun gehiago baikeuen.

Horrela iritsi zen hirugarren barnetegiaren bukaera eta agur-afari bat egin genuen. Uda hura oso gogorra izan zen guretzat harreman polita lortu baikeuen irakaslearekin eta guk bagenekien hurrengo urtean ez zela hura bera etorriko. Nahiz eta helbideak trukatu eta eskutitzak elkarri bidaltzeko hitza eman, agurra oso tristea izan zen.

Orain, Bahía Blancako barnetegi hura gogoratzen dudanean, konturatzen naiz jende askorentzat garrantzi handikoa izan zela. Uda hartan guk ez genituen hango euskara-ikasleak ezagutu, baina harreman onak izan genituen dantza-taldeko gazteekin. Haiek, nahiz eta Euskal Herriko kultura asko maite, ez ziren inoiz euskara-klase batera joan. Baina, gurekin egon ondoren, gure irakaslea ezagutu eta gero, interes berria piztu zitzaion. Haiek ere euskararekiko zaletasuna izan zuten. Gero jakin ahal izan genuen beste euskara-talde bat sortu zutela. Ezin dugu esan guri esker gertatu zenik, baina jakin badakigu oso garrantzitsua izan zela gure esperientzia haiei kontatzea. Jakin gabe ere, euskara zabaltzen genuen!

Neguan berriro Bahía Blancan elkartu ginen, hamar eguneko ikastaro bat egiteko. Gaia arras bestelakoa izan zen. Ikastaro horretan metodologiari buruz hitz egin genuen. Denok euskara-irakasleak ginen, baina arazoak genituen klaseak ondo prestatzeko, gure ikasleak laguntzeko. Horregatik, oso onuragarria izan zen hori guretzat. Ikasleen egoera kontuan hartuz eta adituek esaten zituztenak irakurritz, geure klaseak hobeto antolatzen ikasi genuen. Noski, gehiago ikasi behar genuen, baina lehenengo pausoa emanda zegoen eta bagenituen tresnak arazoak gure kabuz konpontzeko. Gainera, oso aukera ona izan zen denon artean geure euskal etxeko lanari eta irakasle-lanari buruz ere hitz egiteko. Besteen esperientzia entzunez asko ikasten genuen eta konturatu egiten ginen gure arazoak normalak zirela. Eta barnetegi horretan den-dena konpondu ez arren, lasaiago itzuli ginen euskal etxeetara klaseak ematera.

Hurrengo udan, gure azken egonaldia Argentinako barnetegi batean izan zen, Bahía Blancako euskal etxean berriro. Hala ere, urte horretan gauzak aldatu egin ziren. Barnetegietan nork bere erritmoari jarraitzen zion eta, ebaluaziorik ez zegoenez, oso zaila izan zen maila orekatua mantentzea. Horregatik, laugarren barnetegia egiteko momentuan, euskalduntze-prozesuaren etapa desberdinetan geunden eta oso zaila zen talde berean lan egitea. Hori dela eta, laugarren barnetegia bi zatitan banatu zuten. Batzuk urtarrilean joan ziren ikastaro intentsiboa egitera, pixka bat aurrerago egoteko. Eta besteok otsailean joan ginen, taldea berriro osatzera.

Horregatik, azken barnetegia laburragoa izan zela esan dezaket. Hala ere, oso ona izan zen niretzat, gauza berri asko ikasi baintuen hilabete horretan eta asko aurreratu nuen. Irakasle berria izan genuen. Argentinarra eta, gu bezala, euskara Argentinako barnetegietan ikasia. Gero Euskal Herri-

ra joan zen bizitzera eta hango mutil batekin ezkondu. Harekin izandako esperientzia ere oso berezia izan zen, euskara ikasteko geneuzkan zailtasunak oso ondo ulertzen zituen-eta. Ikastaro horretan asko landu genuen gramatika eta azken gaiak ikasi genituen.

Gainera, mintzatzeko ariketak egiten jarraitzen genuen eta gure arteko eztabaidak gero eta interesgarriagoak ziren. Liburuak irakurtzen genituen eta gero irakurritakoa elkarri kontatzen genion. Klasetik kanpoko ekintzak ez ziren aldatu: hondartzara joaten ginen, mendira gutxiagotan. Baina bazegoen zerbait berezia, aipatzen genituen gaiak desberdinak ziren. Gu bezala, Argentinan euskara ikasten hasi ziren talde guztiak, Argentinako azken barnetegia bukatu ondoren, Euskal Herrira joan ziren, prozesua ondo bukatuzera. Eta gure irakasleak esperientzia hori ondo ezagutzen zuen. Horregatik, askotan hitz egiten genuen horri buruz, eta nahiz eta guk zer egingo genuen ez jakin, Euskal Herriko barnetegi batera joatea gure amets bihurtu zen. Berak Euskal Herriko bizitza nolakoa zen kontatzen zigun eta gu liluratuta geratzen ginen eta horrek aurrera joateko indar berriak ematen zizkigun. Guk egindako ahalegin guztiek balio handiagoa zuten guretzat.

Horrela bukatu genuen Bahía Blancako azken barnetegia. Nahiz eta neguan berriro hara joan, hurrengo barnetegia desberdina izan zen, metodologiari buruzkoa izan baitzen. Agurra ez zen hain tristea izan, guk geure irakaslea berriro ikus genezakeela bagenekielako, Argentinan nahiz Euskal Herrian.

Negu hartan hamar eguneko ikastaroa egin genuen, gai nagusia metodologia berriro ere. Guk irakasle bezala ere prestakuntza behar genuen eta ikastaro horretan asko aurreratu genuen. Ikuspuntua erabat aldatu genuen eta era berri batean hasi ginen begiratzen Argentinako ikasleen egoerari, motibazioei eta helburuei. Euskara oso hizkuntza berezia dela kontuan hartu eta horrela gauza asko ulertu genituen. Nik ikuspuntu hori hartu nuen eta gaur arte oso baliagarria izan da nire klaseak eta ikasleen prozesu orokorra hobeto planifikatzeko.

Gure irakaslea Euskal Herriko neska bat zen, eta nahiz eta berarekin hamar egunean egon, oso harreman onak izan genituen. Harekin hasieratik hizkuntza berria ikasteak zer esan nahi zuen galdetu genion geure buruari berriro. Eta konturatu ginen horrek pauso asko ematea zekarrela berekin. Gainera, Argentinako ikasleen egoeran, euskara ikastea oso berezia zela ohartu ginen. Euskara, hemengo jendearentzat hizkuntza ezezaguna da normalean, eta oso zaila izaten da doinuari ere antzematea. Horregatik, lehenengo pausoak euskararekin topo egitea izan behar du. Eta guri askotan ahazten zitzaigun hori.

Bestalde, euskara-kurtso batean lantzen diren trebetasunei buruz hitz egin genuen. Eta konturatu ginen ez genituela horien arteko aldeak hain argi ikusten. Esate baterako, guk askotan ulermena lantzen genuela uste genuen eta, aitzitik, gramatikarekin ari ginen. Horregatik oso inportantea zen ikastaroan horretaz hitz egitea.

Ariketak ere izan ziren ikastaroko gaia. Hasteko, gai bat ikasteko ariketa batzuk guk proposatu behar genituen. Baina gero, asmatutako ariketak

aztertu genituenean, konturatu ginen ez zutela logika handirik. Beste era batean esateko, oso ariketa leloak zirela. Ikasleei proposatzen genizkien ekintzak ez zuten helburu praktikorik. Gure gaia lantzeko ziren, besterik gabe. Ez genuen aintzakotzat hartzen ikasleak pertsonak zirela eta interesak bazeuzkatela. Haiek hizkuntza bat ikasi nahi zuten, oraindik ere hitz egiten den hizkuntza. Baina klaseetako ariketek ez zuten hizkuntzaren bizitza erakusten. Oso artifizialak ziren eta komunikazioa, hizkuntza baten funtzio nagusia, beti alde batean geratzen zen.

Egoera horretaz konturatu ginenean, berehala ulertu genuen gure ikasle- en interesik eza. Arrazoiak argi zeuden: Haiek bizirik dagoen hizkuntza baten bila joan ziren euskara-klasera eta hor ariketa artifizialak eta komunikaziorik gabeko egoerak aurkitzen zituzten. Baina, guk hura alda genezakeen eta neguko ikastaroan hasi ginen hori guztia abian jartzen. Ariketa berriak asmatu genituen. Eta denon artean klaseak pentsatzeko beste modu bat garatu genuen.

Neguko ikastaro horrek garrantzi handia izan zuen niretzat. Hor ikasi nuenak gaur ere laguntzen baitit klaseak ematen. Eta gainera aldaketa oso ona izan zen, ikasleak konformeago baitaude. Eta pozik joaten dira klaseetara. Gainera hizkuntzarekin lortu duten harremana sendoagoa da.

Horrela bukatu ziren Argentinako gure ikastaroak. Etapa bat bizi izan genuen eta ez genekien argi eta garbi zer etorriko zen. Gure nahia, noski, Euskal Herrira joatea zen, baina bagenekien hori zaila zela. Hala ere, esperantzarik ez genuen galdu eta negu hartan banandu ginenean, ez genuen ezer esan, baina denok geneukan bihotzean desio bera: hurrengo udan Euskal Herrian elkartzea.

Euskararen lurrean

*Herrialde guztietan
toki onak badira.
Baina bihotzak dio:
Zoaz Euskal Herrira!*

Berri ona iritsi zen urte hartan udarekin batera. Bai, gure desioa egia bihurtu zen eta uda hartan, barkatu, Euskal Herriko negu hartan, euskaraz biziko ginen. Izugarrizko poza eman zigun berria jasotzeak eta berehala hasi ginen, bakoitza bere lekuan bidaia prestatzen. Denbora azkar pasa zen eta urtarrilaren egun batean Ezeiza aireportuan elkartu ginen denok, urtero bezala, bai, baina helburu berezi batekin: Euskal Herrira joatea. Eta bidaia egin genuen. Eta euskararen lurrera iritsi ginen. Hango aireportuan HABEko jendea zegoen gure zain. Haiekin hitz egin ondoren, berehala joan ginen Lazkaora. Hor zegoen gure barnetegi berria, Maizpide izenekoa. Baina gu bakarrik ailegatu ginen eta egoera oso barregarria izan zen inor ez baitzen ausartzen euskaraz hitz egitera. Zorionez, hor ziren idazkariak eta lagundu egin ziguten. Maizpiden urrats desberdinetan hasi ginen eta ni lagun batekin zazpigarrenean sartu nintzen.

Barnetegia oso polita eta eroso da, zeren eta dena baikenuen eskura leku berean: ikasgelak, logelak, liburutegia, jangela, eta abar. Gu astean zehar hor bizi ginen eta asteburuetan Donostian egoten ginen.

Kurtoan hiru irakasle izan genituen eta oso ondo konpondu ginen hasieratik. Hala ere, Maizpiden beti euskaraz mintzatzen zen jendea eta hori gogorra izan zen guretzat. Alde batetik poztzen gintuen ados geundelako

“Euskal Herrian euskaraz” ideiarekin. Baina, bestetik, zaila egin zitzaizgun gaztelania ahaztea. Klasean, hasieran oso gutxi hitz egiten nuen eta hori aldatu nahi nuen, lagunak izan nahi baintuiten. Baina gero nire arazoa ulertu eta errazagoa izan zen dena. Nire ikaskideek, nahiz eta akats asko egin euskaraz hitz egiten zuten eta eguneroko hizkuntza erabiltzen zuten. Nik, berriz, beti oso ondo hitz egin nahi nuen eta horregatik oso nekagarria izaten zen niretzat. Baina nire helburua euskaraz bizitzea zen eta hori lortzeko lasaiago egon behar nuen. Eta poliki-poliki hasi nintzen beldurra galtzen eta eguneroko bizitzan nekiena erabiltzen.

Oso harreman ona izan genuen ikaskideekin hasieratik eta nahiz eta argentinarrak “berriak” izan, laster moldatu ginen ondo. Gainera, Maizpiden hilero etortzen ziren ikasle berriak eta jende asko ezagutu genuen. Hasieran, argentinarrak ginela esaten genuenean jendea harrituta geratzen zen. Irratiko jendea, telebistakoa eta egunkarietakoa ere gure bila joaten zen, gure esperientziari buruz hitz egitera. Baina denbora pasa ahala, oso ondo integratu ginen. Maizpideko jendea oso jatorra izan zen beti gurekin eta, zerbait behar genuenean, bagenekien haiengana jo genezakeela. Sukaldariak, esate baterako, oso jatorrak ziren. Hasieran, arazokak izan genituen haien hizkera ondo ulertzeko, bertako euskaraz hitz egiten baitzuten eta guk irakasleen hizkera besterik ez genuen ezagutzen. Baina egunero joaten ginen sukaldera, “mate” edateko ur bero bila eta beti hizketan geratzen ginen.

Maizpiden asko ikasten genuen, baina bestelako ekintzak ere egiten genituen. Hilero, adibidez, txango bat egiten genuen taldeko ikaskideekin. Goierriko baserrietara joaten ginen, gazta egitera, abarkak egitera, erleak ikustera eta abar. Bertso-afariak izaten genituen eta horrela ezagutu nuen nik bertso-larritza. Eta liluratuta geratu nintzen. Gero asteburuetan, neure kabuz joaten nintzen bertso-saioak ikustera eta bertsolari famatuak ezagutzeko aukera izan nuen.

Bestalde, Beasainen, Lazkao ondoan dagoen herri batean, hitzaldi asko izaten ziren eta taldekoekin hara joaten ginen. Euskarari buruzko hitzaldi batean Bernardo Atxaga eta Rupert Ordorika ezagutzeko parada izan genuen eta oso esperientzia polita izan zen. Euskaltegian filmak ikusteko gela berezia dago eta hor edozein motatako filmak ikus genitzakeen, beti euskaraz.

Asteburuetan Donostiara joaten ginen, aterpetxe batera. Baina oso ondo aprobetxatzen genuen denbora, txangoak egiteko. Hasieran, gertu ziren herrietara joaten ginen, baina, denbora pasa ahala, gero eta gehiago ezagutu nahi genuen eta izugarritzko txangoak antolatzen genituen. Gainera, guk bagenituen lagun asko Euskal Herri osoan eta bisitatxoak egitera joaten ginen astebururo. Bestalde, Maizpideko ikaskideak oso jatorrak ziren eta haien etxeetara joatera gonbidatzen gintuzten. Horrela, poliki-poliki, ia Euskal Herri osoa ezagutu genuen.

Gainera, hasieran herrietako jendearekin hitz egitera ez ginen ausartzen, baina, gero, euskaraz mintzatzeko ohitura lortu genuenean, jendearekin hasi ginen hitz egiten. Eta haiek, hasieran, aho bete hortz geratzen ziren

argentinarrak ginela esaten genienean, baina gero sinesten ziguten eta oso jatorrak azaltzen ziren.

Asteburu batean Iparraldera joan ginen lagun batzuekin, Zuberoako maskarada ikustera. Bidaia hori oso esperientzia berezia izan zen. Hasieran esan dudaz bezala, ni dantzaria naiz eta Zuberoako maskaradaren dantzak oso ospetsuak dira Argentinan. Horregatik, zuzenean ikusi nituenen, Argentinako dantzari askoren ametsa bizi nuela jakin nuen. Baina aho bete hortz utzi ninduen Zuberoako hizkera izan zen. Egia esateko, ez nuen ia ezer ulertu, baina oso polita iruditu zitzaidan. Hala ere, herriko gazte batzuekin hitz egiten saiatu nintzenean, zerbait gehiago ulertzea lortu nuen. Egun hartan euskararen xarma berriro agertu zen niretzat. Latina baina zaharragoa den hizkuntza hori Iparraldeko herri txiki batean oraindik bizirik zegoen eta gazteek ere haien bizitzan mintzatzeko arbasoen hizkuntza aukeratzen zuten. Esperientzia hori bizi izan ondoren, euskararekin beti gertatu zitzaidan bezala, jakin nuen erabakia hartuta zegoela: Egunen batean Iparraldeko euskara ikasiko nuela. Ez dakit noiz egingo nuen hori, nire lana oraindik Argentinan dagoelako, baina ziur nago egunen batean bigarren helburu hau lortuko dudala.

Gure ikastaroa bi hilabetekoa izango zen eta denbora azkar pasa zen. Konturatu baino lehen etxera itzultzeko unea iritsi zen eta nik ikas-prozesua bukatu gabe nuen artean. Horregatik, arduradunarekin hitz egin nuen eta HABEk dirulaguntza eman zidan lau hilabete gehiago Maizpiden geratzeko. Hori dela eta, Maizpiden jarraitu nuen euskara ikasten. Ekintza politetan parte hartu nuen, esate baterako, Maizpideko aldizkaria egiteko nire ikaskideekin lan egin genuen. Ipuin bat idatzi genuen eta oso pozik geratu ginen emaitzarekin.

Maizpiden nire maila azkar hobetzen zen eta EGA azterketaren matrikula egiteko epea iritsi zen. Ez nekien ondo egiteko gai izango ote nintzen, baina saiatu behintzat egin nahi nuen. Eta matrikula egin nuen. Klasean, irakaslearekin ariketa bereziak egin eta asko ikasi nuen atariko probari buruz. Konturatu gabe lehenengo probaren eguna iritsi zen. Donostiara joan nintzen. Han jende asko zegoen. Euskal Herriko Unibertsitateko ikasgeletan egin genuen froga. Egia esateko, azterketa bukatu ondoren ni pozik nengoen, nire ahalegin guztiak egin nituelako lana ondo egiteko. Hala ere, emaitzak ikusteko astebete itxaron behar genuenez, Maizpidera itzuli nintzen eta ikastaroan jarraitu nuen, beti bezala. Irakaslearekin idatzizko probaren ariketak ere egin nituen eta sinonimo asko ikasi. Baina, egia esateko, idatzizkoan gehien lagundu zidatenak Joan Mari Irigoienek Babiloniak eta Sarrionandiaren Narrazioak izan ziren. Izan ere, liburu horiek irakurritz nire hiztegia zabaldu egin nuen eta sintaxi konplexua ikusi nuen. Noski, hori konturatu gabe ere egin nuen, niri literatura gustatzen zaidalako. Baina denbora pasa ahala, oso onuragarriak izan zirela konturatu nintzen.

Astebete pasa zenean, emaitzak jakin nituen. Berri onak. Bai, atariko proba gaitzua nuen. Eta idatzizkoa egin behar nuen. Ni oso baikorra nintzen, zeren eta idaztea niretzat beti plazer izan baita. Baina, hala ere, berridazketak egin behar nituen. Eta nire gramatika hobetzen aritu nintzen. Bigarren

eguna ere iritsi zen eta hara joan nintzen, berriro nire ahalegin guztiak egitera. Denbora gehiago itxaron behar izan nuen, emaitza jakiteko. Baina merezi izan zuen. Bai, bigarren froga ere gainditua nuen. Zailena geratzen zen: ahozkoa. Maizpideko irakasle batek asko lagundu zidan azterketa hori prestatzen. Baina nik banekien lasai egotea oso garrantzitsua zela horrelako gauzak ondo egiteko. Horregatik, azterketaren bezperan lagun batzuekin Alzako jaietara joan nintzen. Eta Euskal Herrian beti bezala, zorte ona izan nuen eta Joan Mari Irigoiekin egin nuen topo. Esperientzia hori bizi ondoren, poz-pozik joan nintzen azterketa egitera. Eta urduri egon arren, ondo aritu nintzen. Aztertzaileek ere galdetu zidaten Argentinako nire euskalduntze-prozesuari buruz eta nik kontatu nien, baina ez nekien haiek zer uste zuten. Orain konturatzen naiz haiek ere harrituta zeudela eta Argentinako euskal etxeetan zer gertatzen zen jakin nahi zutela, besterik gabe.

Aurrekoetan bezala itxaron ondoren, berri ona berriro ere: ahozkoa ere gainditua nuen eta EGA titulua lortua. Egia esateko, hori ez zen nire helburua. Euskal Herrira joan baino lehen, nik euskaraz bizi nahi nuen. Esperientzia hori izan nahi nuen. Baina hala ere, tituluak poz handia eman zidan. Banekien gehiago ikasi behar nuela, baina jakin ere banekien euskaraz bizi izateko gai banintzela. Egonaldia bukatu eta etxera itzuli behar izan nuen.

Agurra benetan tristea izan zen, jendea hain urrun uztea beti izaten baita gogorra. Baina, aldi berean, zoriontsua nintzen, bai bainekien Euskal Herrian bizi izan nuena inoiz ez nuela ahaztuko. Nire asmoa egin nuen. Euskal Herrian euskaraz bizi izan nintzen. Latina baino zaharragoa den hizkuntza ikasi nuen.

Nire lana, gure lana, denon lana

*Aitorren hizkuntza
zaharra
nahi degu zabaldu*

Euskal Herritik itzuli ondoren, euskara-klaseak ematen berriro hasi behar nuen, baina nire hiriko egoera erabat aldatuta zegoen. Euskal etxe zaharrean nire lana bukatu zen eta euskal etxe berrian, hau da, *Urrundik*-en, ikasle berriak nire zain zeuden. Indar berriak nekartzan Euskal Herri-tik eta berehala hasi nintzen lanean.

Talde bat osatu eta barnetegietan ikasitako guztia praktikan jarri nuen. Euskararekin lehenengo topaketa egiteko abesti asko entzun genituen. Poliki-poliki lehenengo gaiak ikasten hasi eta hiztegia osatzen aritu ginen. Klasean joko asko egiten genituen eta, batez ere, ondo pasa genuen. Lehenengo ikastaroa oso atsegina izan zen, niretzat zein ikasle-entzat. Hala ere, nik ez nekien ea helburua, hau da, euskararen doinua ezagutzea lortu zuten ala ez. Baina zalantza berehala desagertu zen: Urte bukaeran, afari batean nire ikasle batzuek euskal kanta bat prestatu zuten eta gitarra batekin abestu zuten. Ez nekien ezer eta ustekabe hunkigarria izan zen. Ikasleek euskararekin topo egin zuten eta atsegina irudititu zitzaien. Momentu hartan konturatu nintzen haiek ere euskararekiko zaletasuna zeukatela eta nirekin lortu zutela.

Udan berriro elkartu ginen Bahía Blancan, bost eguneko ikastaroa egiteko eta Euskal Herrian ikasitako gauzak gogoratu genituen. Metodologiari buruz ere hitz egin genuen eta elkarrekin lan egin genuen.

Aurten *Urrundik*-en bi talde dauzkat klaseak emateko. Oso handiak dira. Horrek izugarrizko poza ematen dit euskararekiko interesa ez dela galtzen erakusten baitu. Ikasle batzuk helduak eta beste batzuk, berriz, oso gazteak direnez, ikasteko modu desberdinak izaten dituzte.

Helduek askotan ahalegin handiagoak egin behar izaten dituzte, zeren eta hizkuntza bat ikasteko estrategiak ahaztuta baitituzte. Ikasketak duela urte asko bukatu zituzten eta berriro hastea zaila egiten zaie. Baina, hala ere, abantaila garrantzitsua dute: haiek ziur-ziur dakite euskara ikasi nahi dutela eta beraien borondatea indartsua izaten da. Horregatik, ahaleginak eginez, helburuak lortzen dituzte.

Gazteek, berriz, errazago ulertzen dituzte gaiak, zeren eta haien buruak prestatuta baitaude hizkuntza berriak ikasteko. Askotan, gramatika kontuan hartu gabe ere gauza konplexuak ikasten dituzte eta, memoria ona izaten dutenez, gutxiago egin behar izaten dute etxean.

Baina gazteek zein helduek talde baten barruan daudela dakite eta beti ahaleginak egiten dituzte oreka mantentzeko, elkarri laguntzen diote eta pazientzia handia dute. Gainera, aurten *Hezinet* daukagu euskal etxean eta programa horren laguntzaz, errazagoa izaten da norberaren beharrak asetzea. Ikasleek, nork bere erritmoan, lan egiten dute eta beharrezkoa dela uste dutenean, ariketa gehiago ere egiten dituzte. Bestalde, *Hezinet*-en ikusten eta entzuten dituzten dokumentuak oso garrantzitsuak dira entzumena eta ulermena lantzeko. Niretzat lan handia da bi talde hauek aurrera eramatea, baina *Hezinet*-ekin laguntza handia daukat.

Urrundik-en eskaintzen diren euskara-klaseak oso zerbitzu ona dira Paranako komunitatearentzat. Matrikulatzeko ez da beharrezkoa Euskal Herriko arbasorik izatea. Nahi duenak egin dezake matrikula. Izan ere, aurtengo ikasle askok ez dute Euskal Herriko arbasorik, baina euskara ikasi nahi dute eta hona etortzen dira. Klaseak doan dira eta hori oso garrantzitsua da gaur egungo Argentinan. Hemengo krisia oso larria da eta jendeak ezin ditu klaseak ordaindu, baina ikasi egin nahi du. *Urrundik*-en ez dute ordaintzen eta horrela oztoporik handiena desagertu egiten da. Gainera, argentinarrak oso kezkatuta bizi gara azken bolada honetan eta eguneroko arazoez kalte handia egiten digute. Askotan une baketsua behar izaten dugu, leku berezi batean, geure burua lasaitzeko. Gure euskal etxeak, eta, euskara-klaseak bereziki, aukera hori ematen dio jendea-ri. Eta ez dugu esan nahi euskal etxean jendea mundutik kanpo dagoenik. Baina momentu batean, hizkuntza bat ikasten ari direnean, buruek atsedena hartzen dute. Noski, jendea ez da euskara-klasera etortzen terapia egitera baina txolarte atsegina pasatzen du eta hobeto sentitzen da. Horregatik esan dezaket euskal etxeko eskaintza oso estimagarria dela jendearentzat.

Euskal etxean euskararen kontua oso garrantzitsua da eta proiektu asko daukagu euskara gero eta gehiago zabaltzeko. Adibidez, antzerkiaren kasua oso erakargarria izaten da ikasleentzat. Gure asmoa da ipuin tradizionalak, Argentinakoak zein Euskal Herrikoak antzezteko eran moldatzea. Istorioak oso ezagunak direnez, ez da beharrezkoa izango oso maila

altua izatea garrantzitsuena ulertzeko. Horrela, euskal etxean klasetik kanpo euskara erabiltzeko arlo bat sortuko litzateke eta euskal etxean ere euskara bizirik egongo litzateke.

Nahiz eta horrelako proiektuak handizale samarra irudit, berealdiko garrantzia du, nire ustez, jendearen indarrak eta gogoak ondo aprobetxatzea. Argentinako egoera ekonomikoa eta soziala kinka larrian dago une honetan eta jendeari askotan ez zaio axola horrelako ekintza kulturaletan parte hartzea. Horregatik, horrelako interesa agertzen denean, ondo bideratu behar da. Horrelako interesa berezkoa baldin bada, zerbait berezia gertatzen da. Eta euskararenean hori oso garrantzitsua da. Ezin dugu ezizkiarena egin, zeren eta hori egiten badugu, euskararen atzerakaden arduradunak gu geu izango baikara.

Nire euskalduntze-prozesua ez da inoiz bukatuko, baina, hala ere, helburu nagusia lortu dudala esan dezaket. Nik altxor bat lortu dut, Aitorren hizkuntza hitz egiten dut. Baina badakit orain beste ardura bat daukadala: ni bezalako jendeari bere helburua lortzen lagundu behar diot. Une honetan bizitza zein perfektua den konturatzen naiz. Nire zikloa duela urte batzuk hasi nuen eta iaz eman ahal izan nuen bukatutzat. Nire asmoak egia bihurtzeko jende askok lan egin zuen eta orain nik jende horren lekua hartu behar dut. Eta beste ziklo batzuk hasiko dira.

Nire ikasleak egunen batean irakasleak izango dira eta nire lekua hartuko dute. Egun hartan zikloa berriro hasiko da eta euskarak berriro erakutsiko dio munduari bizirik dagoela. Hizkuntza zahar hori hitz egingo da. Latina baina zaharragoa den hizkuntza ez da hilko. Gero eta indartsuagoa izango da, Euskal Herrian zein Argentinan. Ni ziur nago egun hori iritsiko dela, eta badakit jende askoren lanari esker izango dela.

Nik Aitorren hizkuntza ikastea erabaki nuenean, konpromisoa hartu nuen. Niri lagundu zidatenek ere, askoz lehenago, konpromiso berbera hartu zuten. Eta gaur euskara ikasten ari direnak ere, ezari-ezarian, bidean sartu dira. Horregatik, esango dut euskararen bizia denon ardura dela, denon ahalegina dela, eta, denon poza.